

Buesa Nagusi

TXILLARDEGI



PSOE delakoa alderdi espainola eta anti-
euskalduna dela esatea,
jende guztiak ongi dakie-
na alferrik errepikatzea
besterik ez da. 'Eusko
Jauriaritza'ko Lehendakari-orde eta nazio-
hizkuntzaren alorreko arduradun nagusiak
behin eta berriz, herri gizarajo honen kontra
harro-harro erasotzea; eta Ardanza, Arregi eta
Garmendiaren bedeinkazioak biltzea, hauxe da
guretzat irekaitza.

Hego-Euskal Herria 'Espainia' tik bereziko
asmoa goitik eta behetik madarikatzen duen
berberak (Buesa, alegia), begi onez ikusten du
Araba 'Comunidad Autónoma' tik bereztea.
Nafarroa at egotea berdin zitaioan, jakina. Ipa-
ralde osoa at egotea, berdin ere bai. Eta Araba
bereztea ere ongi iruditzen zaio.

Garbiago, ur garbia, Euskal Herria mila
puskatan zatitza bidezko iruditzen zaio
Vicelendacariari. 'Espainia' ri puska bat ken-
tzea, aldez, barkatu ezinezko hobena.

Eta honek bi ama famatu haren eztabaida
famatu hartara garamatza. Eta Salomon-ek as-
matu zuen proposamen famatu hartara: «erdibi
ezazue hurra, eta eman haur-erdi bana bi
emakume horiei». Segida ezaguna da: bene-
tako amak ez zuen zatiketa hura onartu; sasi-
amak, bai.

Guri berdin zaigu 'Espainia' delako hori za-
tikatzea. Herriei justizia egiteko, hain zuzen,
Autodeterminazioaren bitartez, zaitu egin
behar da. Buesari, bide beretik (eta lankide
irimo eta leial daukan PNVari), berdin zaio
Euskal Herria mila puskatan zatitza. Eta ho-
netxek salatzen du ongienik 'amatasun' hori:
bai Buesari, bai Arzalluzen morrointxo leialei,
berdin zaie gure herriaren puskatzea. *Bestela
Buesa ez litzateke hor egongo.*

Espainiazaleek 'errespetua' merezi dute
Jauriaritza zipaio horietan. Euskaltzaleek,
abertzaleek, herri hau atzerriat inperialismotik
jaregin nahi dugunok, ez dugu errespeturik
merezi. Guri egura eta 'beitzak'. ¡Y olé!

Hipokondria

HASIER ETXEBERRIA



BENETAKO

gaisotasunik euki gabe,
bere burua gaisotzat hartu
eta azkenean gaisorik
amaitzen duenari esaten

zaio hipokondriakoa, nik dakidala behintzat.
Ez dakit zuek, baina nik, ezagutzen ditut pare
bat hipokondriako. Beti osasuna zaintzen, eli-
kadura neurtzen, kirola egiten... eta beti gai-
sorik. Beldura ez denean, bizkarra izaten da,
edo eztarria, edo sabela. Bete minez eta beti
kezu, ez dute atarramendu onik halako zori-
xarrak jasaten dituztenek.

Orain neuri ari zait gertatzen. Aspaldion,
osagile kongresu, bilera edo ihardunaldiak
antolatzen direnean, hipokondriako bihurtzen
naiz. Halakoetan, han erabakitakoak prentsara,
irratira edo telebistara pasatzen direnean, neu
ere gaisotzen hasita nagoela pentsatzen hasten
naiz. Ez da gutiagorako.

Orain bertan bihotzekoa daukat, izan ere be-
re kongresua egin berri dute Kardiologiako
Elkarte Europearrekoek. Beraien hitzen arabe-
ra, ehunetik bat bakarrik jaiotzen da bihotzeko
gaisotasunarekin. Gaintzeko guztiok bizi-
tza zehar harrapatzen omen dugu gaisotasun
hori. Tabakoa, estresa, jaki koipeitsuak, al-
kohola, bakardadea, gehiegizko kirola eta aba-
rrak omen dute guztiaren errua. Bizitza bera
omen da hiltzearen arrazoa. Eta neri dagoki-
danean, pekatu guztiak ditut neregari: erretzai-
le naiz, tragoxka bat edo beste ere hartzen dut,
estresa tokatzen zait noizean behin, jaki koipe-
itsuak ere bai eta noizbait bakardadean egon
ez denik ezagutzen baduzue, esaidazue nor den.
Bihotzekoaren kiniela guztiak ondo beteta di-
tut.


Hurrengo kongreso batean minbizia harra-
patuko dut eta beste batean pulmonia. Ginekolo-
giakoa egiten dutenean, osteria, haundun ez
gertatzeko neurriak hartu beharko ditut.

HEMEROTEKA



Lurraldearen etorkizuna

Lurraldeak, jakina, nahi
duena egin dezake, are bere
irizpidea oinarritzeko tele-
fonoz egindako inkestetara
jotzea ere, zeinetan hiritar
harrizuei galdetzen bait zi-
tzaien zein izango zen beren
aburua hain aukera bereziari
buruz (desegitea, mugim-
endu ekologista bihurtzea
edo bakearen aldeko kolek-
tibo bilakatzea). Baina egin
behar duten eztabaidatik
bakearen aldeko uesteko
mugimendu bihurtuta atera
nahi badute, bide txarretik
doaz. Autobidearen gataz-
kan Koordinadora honen
protagonismoa, ETAREN
mehatxuek instituzioak
txantaitu dituztelako bak-
karririk gertatu da. Horregatik,
orain, inoiz ez dituenean
atentatu terroristak salatu,



GALLEGO & REY / DIARIO 16

gatazka konpontzearen
negoiazio jokalekuak bul-
tatzeko prest agertzeak si-
nesgarritasun guztia ken-
tzen dio bere diskursoari.

EDITORIALA

EL DIARIO VASCO

Nolako kontsentsua?

Ajuria Eneko Mahaiak
alderdien arteko konfidan-
tza giroa berreskuratu behar
du. Berealdiko lana benetan,
deklarazio baterako nego-

ziazioa bigarren mailako
arazo erretoriko bihurtzen
duena. Terrorismoaren
kontrako kontsentsuak no-
raino iritsi behar duen izan-
go da eztabaidaren xede na-
gusia, debate hori biolen-
tziaren amaiera mailaka-
tuaren gaineko hausnarketa
estrategiko oso bat izanik.
Labur esanda, lehia bat sor-
tuko da, batetik mugimen-
duak egiteko gehiengo
nahikoa izatea aski dela ueste
dutenak —hots, EAJ eta

PSE-PSOE—, eta bestetik
kontsentsua defenditzen
dutenak —PP, EE eta EA—.
Mahaiaren estrategia berria
Gipuzkoara begira ere
egingo da. Aurrikustekoa da
Instituzioek HBrekin egin-
dako balizko akordioak
Itunak deslegitimatzeko. EA
eta EUEK, Mahaiarekiko di-
ziplina horretatik libratuta,
errealia bera gehiago teori-
koa den aukera hori dute
erabilia izateko prest.
Oraingoz.

ALBERTO SURIO

ZUZENDARIARI

Urtebete pasa da Juan Marik utzi gintuela

Baserrian jaioa, eta bertan bizi izan zen
exiliara aldegin arte, eta bere soro, mendi,
pizti eta familiangandik urrutizeak asko su-
posatu zion. Baina Euskal Herriaren askape-
nerako burrukan parte hartzeak eta Herriaren
soberania berreskuratzeko sentimenduak
hain bihotz barruan zeuzkan, ez zuen beste
irtenbiderik izan.

Oraindik zaila egiten zaigu sinistea, beti-
rako joan zaigula, eta inoiz ez dugula gurega-
natuko.

Bost urte joanak ziren elkar ikusi gabe,
baina beti itxaropena izaten genuen (berak
zuen bezela), noizbait egoera hau aldatuko
zela eta denok elkarrekin Euskadi sozialista
eta Euskadi askatu batean izango ginela. Be-
rak ere hori nahi zuen, eta horregatik konpro-
metzua hartu zuen, bere biziarekin bukatu
zuen burruka honetan. Bazekien zer esan nahi

zuen horrek eta ze arriskutan bizi izan behar
zuen, baina inoiz ez zuen pentsatuko Ertzan-
tzak erahila izango zenik. Bai, Euskal polizia
autonoma deritzazion Ertzantzak!! Bere ha-
mar urtemuga abertzale, bat errematiaz os-
patu zuena.

Juan Mari eramango zuten baina ez bere
oroimena. Hitzak motz gelditzen zaizkigu
bera nolakoa zen adierazteko, ezagutu ez
duenak ez bait luke sinistuko ze mailetaraino
ematen zuen maitasuna Juan Marik; aita-
amari-senidei eta bere inguruko jende guz-
tietan. Bere irribarrea ahoan beti, umerotsu eta alai,
edozein laguntzeko prest eta langile azkarra.
Hitz batean: *Berezia zen*. Bera ezagutze-
ko aukera izan zuenak badaki zertaz ari naizen.

Bukatzeko eskerrak eman nahi dizkizuegu,
Juan Marin oroimenez bildu zaretzen guz-
tioi.

Gora Juan Mari!!!

Gora Euskadi ta Askatasuna!!!

ANGEL ORMAZABAL
Hernani (Gipuzkoa)

Basatitasuna

Zinegotzi jeltzale baten kargutzea eskatu
dute. Salatu dute; Tturkoren omenaldian ikusi
zutela. Zurbarango batzokia (erreta suertatu
zena) zaintzen, badirudi ere, lagundu egin
zuela nolabait, barrikada batzuk kentzeko or-
duan. Hau dela eta bere dimisioa eskatu dute.

Jarrera hau ez da batere harriztekoa; sala-
keta egin duena ez baita inoiz kontratuko
dimititu egin beharko lukeena bera izan
beharko lukeela; barrikada horiek jartzera-
koan ez zielako bere alderdikideei ezer esan,
eta ekintza basati hura burutzea kontsentitu
zuelako. Azken hau, noski, ezinezkoa da, ba-
tzentzat basatikeria hutsa dena beste ba-
tzentzat basatitasuna delako.

A. SANTOS BARRENA



Basauri (Bizkaia)

GAIA JARRITA

Ikasle eskasia

Iazko aldean ikasle gutxi
dugu eskoletan aurren,
agintariak zergati hori
ea aztertzen dezuten,
Ikasi eta sarritan ez da
lan tajuzkorik izaten,
asko zer egin ez dakitela
batzuk erre eta edaten,
gizarte honek haurrak sortzeko
ez du gogorik ematen.

IÑAKI MURUA



Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90

Administrazio Kontseiluoko Lehendakaria:
MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria:
JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkaria: JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: IÑAKI URJIA

Zuzendariordea: LUZIEEN ETXEZAHARRETA

Zuzendari Komertziala: JUAN INAZIO HARTSUAGA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitate: KORNELIO ROTETA

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tallerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02

Publizitate: 20160 Lasarte-Oria / F: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egiltza soziala, Publizitate eta Administrazio: Antso

Jakintza, 16-1 / 20010 Donostia / F: 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Araba: San Antonio, 20-1 ezker. / 01005 Gasteiz / F: 23 38 72 /

Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) /

31011 Inuiña / F: 17 80 78 79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskua. / 48002 Bilbo /

F: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 2. Galuperia kaita,

/ 64100 Baiona / F: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11